

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4371

EBAZPENA, 2019ko irailaren 19koa, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena; horren bidez, giza eskubideen urraketen biktima-izaera eta osasun-laguntza aitor daitezela eskatzeko eredu normalizatua onartu da eta eskariok aurkezteko epea ireki da, uztailaren 28ko 12/2016 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoaren) arabera.

Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, apirilaren 4ko 5/2019 Legearen bidez aldatua) xedea da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoera batean izandako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak errekonozitzeko eta, hala badagokio, erreparazioa emateko eskubideak eratzea, lege honetan aurreikusitako ondoreekin eta irismenarekin.

Aipatu Legearen 13.2 artikulua arabera, interesdunek eskariak aurkeztea errazagoa izan dadin, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko titularraren ebazpenak, eskariak aurkezteko epea zabalduko duenak, eskaera egiteko eredu normalizatua izango du. Era berean, 13.5 artikuluari jarraikiz, biktima-deklarazioa egiteko eskaerak bi urteko epean igorriko dira, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko titularraren ebazpena, eskariak aurkezteko epea zabalduko duena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Gainera, uztailaren 28ko 12/2016 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Lege hau atzeraeraginez eta salbuespen gisa betearaziko da 1960. urtera arte, lege honen 2.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete baina ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoak) babestu ez zituen giza eskubideen urraketan biktimak aitortzeko.

Apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuan (Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoan) ezarritakoaren arabera, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiari dagokio eskariak aurkezteko epea zabalduko duen ebazpena ezartzea, eta, bertan, eskaera egiteko eredu normalizatua jaso beharko da.

Hori guztia dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bi urteko epea zabaltzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek eskariak aurkez ditzaten, uztailaren 28ko 12/2016 Legean ezarritakoari jarraikiz.

2019ko irailaren 26a, osteguna

Bigarrena.– Eranskinean agertzen den eskaera-eredu normalizatua onartzea, interesdunek helbide honetan eskuratu dezaketena:

<http://www.euskadi.eus/biktimei-errekonozimendua-prozedura-ohikoa-12/2016-legearen-arabera/web01-tramite/eu>

Hirugarrena.– Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez. Ondore horietarako, eskariak elektronikoki aurkeztu ahal izango dira, honako helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/biktimei-errekonozimendua-prozedura-ohikoa-12/2016-legearen-arabera/web01-tramite/eu>

Izapidetze presentziala egiteko, eskariak helbide honetara bidal daitezke: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz; edo, bestela, Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkez daitezke, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrena.– Giza eskubideen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuordetzaren edo idazkaritza nagusiaren titularrak ebatzi beharko du planteatutako eskaria, bai eta ebazpena jakinarazi ere pertsona interesdunei, gehienez 24 hilabeteko epean, salbuespeneko arrazoirik ez badago. Salbuespen-kasuetan, izan ere, hogeita lau orduko epea luzatu egingo da, indarreko araudian ezartzen diren mugei jarraikiz.

Epe horretan ebazpenik jakinarazi ezean, eskaerak Administrazioaren isilbidez ezetsizat jo direla pentsatu ahalko dute interesdunek.

Bosgarrena.– Dagozkion konpentsazio ekonomikoak finantzatzeko 1.100.000 euroko zenbatekoa dago gordailututa Euskal Autonomia Erkidegoko 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan.

Hurrengo ekitaldietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeetan onartzen diren aurrekontu-esleipenetan agertzen dena izango da zenbatekoa. Eta behar bezala zabalduko da horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularraren ebazpena argitaratuta.

Seigarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 19a.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.

2019ko irailaren 26a, osteguna

ERANSKINA

ESKAERA-EREDUA

HERIOTZA LESIO IRAUNKORRAK**1.- ESKATZAILEAREN DATUAK:**

JAIOTEGUNA:

LEHEN ABIZENA:

BIGARREN ABIZENA:

IZENA:

NAN/IFZ/AIZ

BESTE IDENTIFIKAZIO-AGIRI BAT (NAN-A EDUKI EZEAN):
MOTA: ZK.:

NAZIONALITATEA:

SEXUA:

HELBIDEA (Kalea, Zenbakia, Pisia eta Atea):

UDALERRIA:

POSTA-KODEA:

PROBINTZIA:

HERRIALDEA:

TELEFONO-ZENBAKIA:

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA (Soilik lehen adierazitakoa ez bada)

HELBIDEA (Kalea, Zenbakia, Pisia eta Atea):

UDALERRIA:

POSTA-KODEA:

PROBINTZIA:

HERRIALDEA:

TELEFONO-ZENBAKIA:

Eskatzen du: Bere izenean
 Aita edo ama Ezkontide alarguna
 Biloba Izatezko bikotekidea
 Neba-arreba Seme-alaba**2.- BESTE ONURADUN BATZUK DAUDELA AITORTZEA:**Bete soilik baldin eta guraso, biloba, neba-arreba edo seme-alaba gisa eskatzen bada.
(Markatu«X» dagokion laukian). Aitortzen dut ez dagoela kausatzailearen ezkontide alargun, izatezko bikotekide edo seme-alabarik, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duenik.Kausatzailearen beste onuradunen bat dagoela jakinez gero, sartu horiei buruzko datuak lauki hauetan:
(ordena baztertzaile honetan: gurasoak, seme-alabak, bilobak, neba-arrebak).

| LEHEN ABIZENA | BIGARREN ABIZENA | IZENA | NAN/IFZ | AHAIDETASUNA |
|---------------|------------------|-------|---------|--------------|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

3.- KAUSATZAILEAREN DATUAK: Soilik heriotzaren ziozko eskatzaileentzat.

LEHEN ABIZENA:

BIGARREN ABIZENA:

IZENA:

NAN/IFZ/AIZ

BESTE IDENTIFIKAZIO-AGIRI BAT (NAN-A EDUKI EZEAN):
MOTA: ZK.:

NAZIONALITATEA:

SEXUA:

HELBIDEA (Kalea, Zenbakia, Pisia eta Atea):

UDALERRIA:

POSTA-KODEA:

PROBINTZIA:

HERRIALDEA:

JAIOTEGUNA:

HERIOTZAREN EGUNA:

HERIOTZAREN LEKUA:

2019ko irailaren 26a, osteguna

4.– ORDEZKARIAREN DATUAK: Bete soilik egokia denean.

| | | |
|---|---|-------------------------|
| LEHEN ABIZENA: | BIGARREN ABIZENA: | IZENA: |
| NAN/IFZ/AIZ | BESTE IDENTIFIKAZIO-AGIRI BAT (NAN-A EDUKI EZEAN): MOTA ZK.: | NAZIONALITATEA: SEXUA: |
| HELBIDEA (Kalea, Zenbakia, Pisua eta Atea): | | UDALERRIA: |
| POSTA-KODEA: | PROBINTZIA: | HERRIALDEA TELEFONO ZK. |

5.– EZINTASUNA EDO HERIOTZA ERAGIN DUEN EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Heriotza edo lesioa eragin duen gertaeraren data: ____ / ____ / ____

6.– BESTE KALTE-ORDAIN BATZUK AITORTZEA (Beti bete).

Inprimaki honetan eskatzen den kalte-ordainaz gain, beste kalte-ordain edo konpentsazio ekonomiko batzuk jaso ditu, eskatu ditu edo eskatuko ditu gertaera horien zioz:

- Ez
 Bai; hala bada, adierazi erakundea, prestazio-mota eta haren zenbatekoa _____

7.– KALTE-ORDAINA ORDAINTZEKO BANKU-DATUAK:

Eskatzaileak «Hirugarrenaren alta» eredu normalizatua bete beharko du, hemen agertzen dena:

http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/Alta_tercero_07032019.pdf

2019ko irailaren 26a, osteguna

8.– DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Kontuan hartuta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio askean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (datuak babesteko erregelamendu orokorra), bai eta datuen babesari buruz indarrean diren gainerako arauak ere, datu pertsonalak «Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen arreta» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla jakinarazten da:

Arduraduna: Lehendakartzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.

Nafarroa kalea 2 - 01007 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 019146

Helbide elektronikoa: derechos-humanos@euskadi.eus

Datuak babesteko ordezkaria

Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel.: 945 018511

Helb. el.: dpd-dbo@euskadi.eus

Xedea: Euskal Autonomia Erkidegoan 1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31ra bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta, hala badagokio, erreparazioa ematea. Terrorismoaren biktimei eta giza-eskubideak urratuak dituzten biktimei arreta eta aholkularitza ematea. Horiek ordezkatzan dituzten biktima edo kolektiboek kalteak konpontzeko eta laguntzeko prestazioen eskaerak izapidetzea eta kudeatzea.

Datuak gordetzeko epea: jaso zireneko xedea betetzeko beharrezkoa den denbora. Artxiboek eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa bete beharko da.

Legitimazioa:

– Errekonozimendurako, konpentsazio ekonomikorako eta, hala badagokio, osasun-laguntzarako beharrezko izapideak, uztailaren 28ko 12/2016 Legean ezarritakoaren arabera, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.c) eta e) artikuluari jarraikiz.

– Biktima-izaera publikoki errekonozitzeko eskubidearen kasuan, zeina uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 5. artikuluan aipatzen baita, eta Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.a) artikuluan arabera, berariaz ematen dut baimena datuak argitaratu eta hirugarrenei jakinarazteko (markatu dagokion aukera):

Bai Ez

Hartzaileak: Ez da aurreikusten uztailaren 28ko 12/2016 Legean jasotzen ez den datu-jakinarazpenik. Betiere, datu pertsonalak interes legitimoa duenari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahalko zaizkio.

Eskubideak: Zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere.

Informazio osagarria. Gure webgunean kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia. <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>

....., 20...(e)koren(a).

Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura.

2019ko irailaren 26a, osteguna

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK
(Originala eta fotokopia, konpultsazeko, edo fotokopia konpultsatua)

1.- EZINTASUNA EDO HERIOTZA ERAGIN ZUTEN EGOERAK EGIAZTATZEA.

- Poliziaren, gobernuaren, justiziaren edo beste edozein erregistro edo iturriren (kalte-ordaina eskatu duenak eskura dituen horien artean) txostenak edo aurrekariak, kausatzailearen helbideari, eta heriotza edo ezintasuna eragin zuen gertaeraren inguruabarrei eta lekuari buruz.

2.- LESIO IRAUNKORREN ZIOZKO KALTE-ORDAINA

- Kalte-ordaina eragin duten gertaeren zioz jasandako lesio iraunkor edo ezintzaileei buruzko txosten eta irizpen medikoak.
- Hala bada gorkio, organo eskudunaren ebazpena, eskatzailearen lesioa edo ezintasuna aitortzen duena.

3.- HERIOTZAREN ZIOZKO KALTE-ORDAINA

A) Heriotzaren ziozko kalte-ordainen eskari guztietan:

- Kausatzailearen heriotza-ziurtagiria.

B) Ahaidetasun-harremana egiaztatzeko:

1.-Ezkontide alarguna:

- Familia-liburua, edo ezkontza-inskripzioaren hitzez hitzeko ziurtagiria, Erregistro Zibilak igorria, heriotza eta gero.
- Eskatzailearen eta kausatzailearen artean ezkontza-harremana indargabetzeko edo bereizteko prozesu bat hasi ez dela adierazten duen aitorten pertsonala.

2.-Izatezko bikotekidea:

- Udaleko bizikidetzaz-ziurtagiria, edo heriotza aurreko bi urteetan kausatzailearekiko bizikidetzaz egiaztatzen duen notarioaren nabaritasun-akta, edo seme-alaba komunak badaude, familia-liburua edo seme-alaben jaiotzen hitzez hitzeko ziurtagiriak.
- Izatezko bikotea zirela egiaztatzen duen agiri publikoa edo beste edozein agiri.

3.-Seme-alabak, gurasoak, bilobak eta neba-arrebak:

- Familia-liburua, edo jaiotzen edo ezkontzaren hitzez hitzeko ziurtagiriak, Erregistro Zibilak igorritakoak, eskatzaileen eta kausatzailearen arteko ahaidetasun-harremana egiaztatzen dutenak.

4.- DIRULAGUNTZEI BURUZKO AZAROAREN 17KO 38/2003 LEGE OROKORRAREN 13. ARTIKULUAN EZARRITAKO BETEKIZUN GUZTIAK BETETZEN DIRELA DIOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. (onuradun guztiek bete behar dute, eranskinean aurreikusitakoaren arabera).

AITORTZEN DUT, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ditudala egiaztatzeko (markatu dagokion aukera):

Baimena ematen dut organo eskudunak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo bildu ditzan.

Ez dut baimenik ematen –eta horren aurka nago– organo eskudunak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzeari buruzko agiriak kontsultatu edo bildu ditzan, eta, beraz, eskari honekin batera aurkezten ditut.

AITORTZEN DUT, nire erantzukizun pean, nire eskarian jaso ditudan datuak egiazkoak direla, eta baimena ematen dut Balorazio Batzordeak polizia-zerbitzuetan, gobernu-agintaritzetan, jurisdikzio-organismoetan eta beste erregistro batzuetan egon daitezkeen aurrekariak, datuak edo txostenak bildu ditzan, heriotza edo lesio iraunkor edo ezintzaileak eragiten dituzten gertaerei buruz.

Inprimaki hau sinatzean, berariaz **ESKATZEN DUT** Lege honetan aitortzen diren eskubide guztiak aitortu daitezela, bai eta dagokion kalte-ordaina ordain dadila ere.

_____, 20 ____ (e)ko _____ ren _____ (a).
(Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura)

2019ko irailaren 26a, osteguna

ERANSKINA

Erantzukizunpeko adierazpena

– Ez nago laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Ez dut eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, ez naute kaudimengabetzat jo ezein prozeduratan, eta ez nago konkurtsoan deklaratuta.

– Ez dut bide eman Administrazioarekin egindako kontraturen bat irmoki suntsiaraz dadin, kausaren batean errudun deklaratuta egotearren.

– Ez nago sartuta, merkataritza-sozietate baten administratzaile gisa edo pertsona juridiko baten legezko ordezkari gisa, honako lege hauekin jasotako kasuren batean: martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo ez naiz Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargua, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

– Egunean ditut indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

– Ez daukat egoitza fiskala erregelamenduz zerga-paradisua gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.

– Dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketa egunean dut, araudiaren arabera zehazten den moduan.

– Ez didate dirulaguntzak eskuratzeko aukerarik kendu ebazpen irmoaren bidez ezarritako zehapen batekin, lege honen edo hori jasotzen duten beste lege batzuen arabera.

_____, 20__ (e)ko _____aren _____ (a).
(Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura)